



KONTINGENTZIA PLANA 2020-2021 IKASTURTEA

Haztegi Ikastola

2020ko uztaila

AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Printzipio Nagusiak urteko planean
3. Transmisio arriskuak murrizteko ekintzak
4. Agertoki posibleak
5. Higiene neurriak
6. Zer egin gaixotasunaren sintomak antzemanaz gero
7. Aurrez aurreko irakaskuntza-jarduera garatzeko jarraibideak
8. Aurrez aurreko eta on line jarduerak uztartuz
9. Hezkuntza jarduera ez presentziala
10. Emozioen kudeaketa

1. SARRERA

Hezkuntza Sailak bidalitako “Koronabirusaren aurrean ikastetxeetan jarduteko protokolo orokorra”-k 2020-21erako antolakuntzarako prebentzio neurriak eta jarduteko jarraibideak ezartzen ditu, hezkuntza- jarduera eta prestakuntza presentziala garatzeko orientabideak eskainiz.

Dokumentu honen xedea Haztegi Ikastolan 2020-21 ikasturterako, antolaketaren ikuspegitik jarduteko jarraibide orokorrak ezartzea da, hasierako edozein eszenatokiri behar bezala erantzuteko, betiere pertsonen segurtasun eta osasun baldintzak bermatuz. Bertan, gure ikastetxeak COVID-19ren aurrean jarduteko estrategiak jasoko ditu, hezkuntza-jarduera garatzeko ikastolako antolaketarekin zerikusia duten esparruak zehaztuz.

Bizi izan dugun osasun krisiaren ostean, hezkuntza komunitateko kide guztien erantzunkidetasuna ezinbestekotzat hartzen da kutsatze arriskuak minimizatzeko eta ikastolaren egunerokotasuna berreskuratu ahal izateko. Krisi horrek, ezbairik gabe, guztion esfortzua eta konpromisoa eskatuko dituzten ondorioak ekarriko ditu.

2. PRINTZIOPIO NAGUSIAK URTEKO PLANEAN

- Lehenetasuna emango zaio HH eta LHko ikasleen (autonomia txikiagoa dutenen) aurrez aurreko irakaskuntzari.
- Lehenetasuna emango zaio ikasle zaugarrienen aurrez aurreko irakaskuntza eta arretari, bereziki Hezkuntza Premia Berezien indize altuena dutenei.
- Familien inplikazioa eta koordinazioa bultzatzea eta sendotzea.
- Higiene eta prebentzio ohiturak lantzea eta sustatzea ikasleen artean kutsatzeko arriskuak murrizteko xedearekin.
- Alderdi emozionalak eta arreta pertsonalizatua lantzea.
- Ikastolaren oinarriko prestakuntza eta garapen teknologikoa ziurtatzea, online jarduera berme guztiekin garatu ahal izateko.
- Ikasle, irakasle eta irakasle ez diren langileen gaitasun digitalak bultzatzea.
- Ikasle guztiei sarbide digitala bermatzea.
- Curriculumaren funtsezko osagaiak identifikatzea eta lehenestea irakaskuntza- ikaskuntza prozesuan.
- Plangintza hau Eusko Jaurlaritzak eta bestelako osasun arduradunek emandako arau eta aholkuetara egokitu eta horien arabera eguneratuko da.

3. TRANSMISIO ARRISKUAK MURRIZTEKO EKINTZAK

1. 1,5 metroko segurtasun- tartea mantentzea pertsonen artean.
2. Maskarak erabiltzea eta arnas- higiena. Doministiku edo ez tul egitean, maskara erabili ezean, garrantzitsua da erabilera bakarreko zapiak erabiltzea ahoa eta sudurra estaltzeko, edo, bestela, ukondoa tolestea.
3. Eskuen higiena. Neurri garrantzitsua, eskuek gainazaletik birusa transmititzeko duten gaitasunagatik. Urarekin eta xaboiarekin egin daiteke, baita soluzio hidroalkoholikoekin ere.
4. Garbiketa, desinfekzioa eta aireztatpena. Sarritan garbitu eta desinfektatu behar dira pertsonekin kontaktuan dauden gainazalak. Aldian- aldian eta egokiro aireztatzea oso faktore garrantzitsua da espazio itxietan kutsatzeko arriskua murrizteko.
5. kontaktu kopurua murriztea. Mugatu egin behar da talde- jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua.

4. AGERTOKI POSIBLEAK

Osasun egoeraren bilakaeraren arabera hiru agertoki posible aurreikusi ditugu:

4.1 agertokia:

Aurrez aurreko irakaskuntza- jarduerak modu normalizatuan garatuko liratekeen kasua da. Ikasturtea irailean hasiko da aurrez aurre etapa eta maila guztietan.

4.2 agertokia:

Tarteko bigarren jokaleku bat izango litzateke, ikastolak irakaskuntza- jarduera malgutasunez antolatzera behartuko gaituena, aurrez aurreko jarduera eta jarduera telematikoa txandakatu eta aldi berean egin ahal izateko, aurrez aipaturiko etapen lehentasunak kontutan edukiz.

4.3 agertokia:

Konfinamendua eta ikasgelaz kanpoko hezkuntza-jarduera ekarriko litzuke, ikastolako langileen presentzia arautzeko neurriak hartuz, ikasleen hezkuntza-jarduerak ez dezan inolako etenik izan.

5. HIGIENE NEURRIAK

Behar beharrekoa da higie neurriak areagotzea, batez ere espazio komunetan (informatika gela, aretoa, irakasle gela, komunak...). Bereziki zainduko da garbiketa eta desinfekzioa. Era berean, espazioen aireztapen naturala eta mekanikoa areagotuko da, barruko airea berritzen laguntzeko, ahal den neurrian kanpoko airearekin lan eginez.

IKASLEEI dagokienez:

- LH3tik gorako ikasleek nork bere musukoa ekartzea eta erabiltzea derrigorrezkoa da.
- Nork bere paperezko mukizapiak ekarri beharko ditu.
- Komuneko bueltak ekiditeko, nork bere ur botila ekar dezake etxetik.
- Nork bere gel hidroalkoholikoa ekartzea komeni da.
- Beti mahai eta aulki berbera erabili beharko dute.

IRAKASLEEI dagokienez:

- HHTik LHko 2.mailara arte maskararen erabilera borondatezkoa izango da bizikidetzatalde egonkorrean gaudenean. Talde horretatik at derrigorrez erabili beharko da, ezinezkoa bada lagun arteko 1,5 metroko distantzia bermatzea.
- LHko 3.mailatik aurrera derrigorrez erabili beharko da, ezinezkoa bada lagun arteko 1,5 metroko distantzia bermatzea.
- Musukoaren motari dagokionez, higienikoa izango da, laneko arriskuak prebenitzeko zerbitzuak bestelakorik agindu ezean.

Eskolako garraio-zerbitzuan musukoa nahitaez erabili beharko da 6 urtetik aurrera.

6. ZER EGIN GAIXOTASUNAREN SINTOMAK ANTZEMANEZ GERO

- Ikastolara egunero bertaratzen diren lagun guztiek ondoko sintomen agerpena zaindu beharko dute:
 - 37 gradutik gorako sukarra
 - Eztul idorra
 - Eztarriko mina
 - Arnasa hartzeko zailtasuna
 - Usainik edo dastamenik ez izatea.

Horrelakorik sumatuz gero, etxean gelditu eta beren osasun- zentrorra deitu beharko dute. Ez dira bertaratuko ezta ere COVID-19a diagnostikatu zaielako isolatuta dauden guztiak, ez eta COVID-19aren sintomak agertzen dituen edo diagnostikoa jaso duen lagunen batekin harreman estuan egon delako etxean berrogeialdian dagoen lagun oro ere.

- Beren etxeko norbaitek COVID-19aren diagnostikoa jaso badu, gurasoek edo tutoreek horren berri emango dio ikastolako zuzendaritzari eta seme edo alaba etxean mantendu beharko dute.
- Gaitzaren sintomak antzemanaz gero, ikastolak seme-alaba jasotzea eskatuko dio familiari. Familiak osasun zentrorra deitu beharko du eta bertan aztertuko da ikaslearen egoera. Balorazioa izan arte, pertsona hori isolatuta mantenduko da.
- Gaitzaren sintomak ikastolako langileren batean agertuko balira, honek ikastola utzi eta etxera joango da eta gomendio berberak jarraitu beharko ditu.
- Haur edo irakasleren batek Covid-19n positibo emanez gero, kontaktutzat hartuko da gainerako ikasgela edo taldea, eta etxeko berrogeialdia egin beharko du 14 egunez, azken kontaktua izan den egunetik zenbatzen hasita.

7. AURREZ AURREKO IRAKASKUNTZA GARATZEKO JARRAIBIDEAK

PREBENTZIO NEURRI OROKORRAK

Aurreko atalean aipaturiko higie-neurriez gain, beste neurri batzuk hartu beharko dira osasun arloko agintarien irizpideak betez.

- Orokorrean, 1,5 metroko distantzia mantenduko da lagunen artean.
- Ikasle-talde egonkorak osatuko dira: bizikidetza-talde egonkorak. Talde horietako kideek elkarren artean sozializatu eta elkarreragin dezakete, pertsonen arteko distantzia zorrotz mantendu beharrik gabe. Bizikidetza-talde egonkor horiek ikastetxeko beste talde batzuekiko elkarrekintza saihestu beharko dute, kontaktu kopurua ahalik eta gehien mugatuz.

ANTOLAKUNTZA

Kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Ikastola egunaren hasiera eta amaiera mailakatzea: Pilaketak saihestu beharko dira eta markatutako noranzkoak errespetatu.
- Ahalegina egingo da ikasle- taldeek ikastetxean egiten dituzten joan- etorriak ahalik eta gehien murrizteko.
- Bilera jendetsuak saihestu.

HAUR HEZKUNTZA

Orain arte egin izan den moduan, sarrerak malgua izaten jarraituko du 9:00-10:00 bitartean.

Sarrera- irteeretarako ate bakarra dugunez, mesedez zentzuz jokatu eta aurrez aipaturiko jarraibideak kontutan hartu. Irteeren ordutegia

MAILAK	EGUERDIA	ARRATSALDEA
HH2	12:00	16:30
HH3	12:20	16:30
HH4	12:20-12:25	16:30
HH5	12:25	16:25

Kontingentzia planaren arabera jarduerak higiene neurriei kasu eginda arautuko dira.

- Eskuen higiea areagotuko da urarekin eta xaboiarekin, gel hidroalkoholkoa saihestuz.
- Lo-kuluxketarako, ohetxoan artean 2 metroko distantzia mantentzen saiatuko da, etzateko garaian ikasleak kontrako noranzkoan kokatuz.
- Pixoihalak aldatu ondoren, haurren alda-lekua desinfektatu egin behako da.
- Beharrezkoak ez diren jostailuak eta objektuak kendu egingo dira.
- Talde egonkorak izateko ahalegina egingo da.
- Komunitateko garbiketa eta desinfekzioa areagotu egingo da.
- Ikastetxeko joan etorriak antolatu egingo dira.
- Irakasleek, ahal den neurrian, tenperatura altuan garbitutako laneko arropa erabiliko dute.

LEHEN HEZKUNTZA

LH1-2: Sarrera-irteeretakoko patioko ate berdea erabili beharko dute.

LH3 - LH4A: Sarrera-irteeretakoko patioko larrialdi atea erabili beharko dute.

LH4B-LH5-LH6: Sarrera-irteeretakoko atzeko frontoiko atea erabili beharko dute.

SARRERA-IRTEEREN ordutegia:

MAILAK	SARRERA ORDUAK		IRTEERA ORDUAK	
	GOIZA	ARRATSALDEA	EGUERDIA	ARRATSALDEA
LH1	9:00	14:30	12:25	16:25
LH2	8:55	14:25	12:30	16:30
LH3	9:00	14:30	12:30	16:30
LH4	8:55	14:25	12:25	16:25
LH5	8:50	14:30	12:25	16:25
LH6	8:45	14:25	12:30	16:30

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA eta BATXILERGOA

Ikasturte osoan zehar ordutegi trinkoa egingo da.

DBH1-2: Sarrera-irteeretakoko patioko ate berdea erabili beharko dute.


DBH3-4: Sarrera-irteeretakoko patioko ate gorria erabili beharko dute.

BATXILERGOA: Sarrera-irteeretakoko patioko ate gorria erabili beharko dute.

SARRERA-IRTEEREN ordutegia:

Ateak 7:45ean zabalduko dira eta sarrerak 8:00 bitartean gauzatu behar dira.


MAILAK	SARRERA ORDUAK	IRTEERA ORDUAK
DBH1-2	7:50	14:00
DBH3-4	7:50	14:00
DBHO	7:55	14:50




JARDUERA

- Bigarren Hezkuntzan ikasturte osoa goizeko jardunaldi jarraituan egingo da.
- Jolas ordua ahalik eta ikasle-kopuru txikiena aldi berean batzeko moduan antolatuko da, pilaketarik egon ez dadin; horretarako espazioak areagotuko dira, eta talde egonkorrek ikasle-taldeen ordu eta espazio berean topo ez egiteko irizpidea nagusituko da.

PATIOA



LATXARTEGI PARKEA



AGIRRE ETXEBERRI PARKEA



EREMU EZBERDINEN LABURPENA

<p>PATIOA (4 gune)</p>	<p>ITURRI 1 ITURRI 2 ATE GORRIA KOROSTI</p>
<p>ATZEKO FRONTOIA (2 gune)</p>	<p>BARRUA KANPOA</p>
<p>LATXARTEGI PARKEA (4 gune)</p>	<p>LATXARTEGI 1 LATXARTEGI 2 ANBULATEGI 1 ANBULATEGI 2</p>
<p>AGIRRE ETXEBERRI PARKEA (2 gune)</p>	<p>AGIRRE GOIKO AGIRRE BEHEKO</p>

ESPAZIOEN ERABILERA

Beharrezkoa denean, eskuragarri ditugun espazio guztiei (LHko eta DBHko liburutegiak, marrazketa gela, laborategia, aretoa, erabilera anitzeko gelak, ingeleseko gela, ...) ahalik eta etekinik handiena aterako diegu. Horretaz gain, herriko hainbat espazio ireki zein itxien erabilera kontuan har daiteke.

BESTE JARDUERA BATZUK

Higiene neurriak betetzeko zailtasunak badaude, ez da ekitaldirik izango.

Ikastolako kirol ekitaldiak, ahal dela, aire zabalean egingo dira.

ZERBITZUAK

Zaintza, garraio eta jangela zerbitzuak, uneko osasun neurriak jarraituz, eskainiko dira.

8. AURREZ AURREKO ETA ON LINE JARDUERAK UZTARTUZ

Agertoki honetan Haur eta Lehen Hezkuntzako bertaratzea lehenetsiko da baina, ohiko antolaketak aldaketa nabariak jasango ditu. HH eta LHko ordutegia trinkoa izan daiteke, talde txikiak osatuko dira eta irakaskuntza presentziala eta telematikoa targetatu egingo dira.

2. agertoki honetan, gelen edukiera mugatu beharra izango dugu talde naturalak zatituz. Aurrez aurreko jarduerarako ikasle kalteberen eta / edo zailtasun gehien dituztenen presentzialtasuna lehenetsiko da. Gainontzeko ikasleek online ikaskuntza sinkronoan edo asinkronoan arituko dira.

Ziurtatu egingo da ikasle guztiek jasoko dutela gutxieneko aurrez aurreko saio kopurua.

Hezkuntza etapa bakoitzeko ikasketa-maila bakoitzean gaitasunen oinarritzko mailak lortzen direla bermatuko da eta era berean lorpen horretarako bide emango duten funtsezko jardueren plangintza egingo da.

Zaintza, garraio eta jangela zerbitzuak uneko osasun neurriak jarraituz eskainiko dira.

9. HEZKUNTZA JARDUERA EZ PRESENTZIALA

Egoera honi erantzuteko, konfinamendu garaian ikasi duguna oinarri hartuta, komunikazioa, elkarlana eta arreta bermatzeko antolaketa eta tresna telematikoak martxan jarriko dira lehenengo momentutik. Horretarako asteroko plangintza jasoko dute ikasleek zeinetan jasota egongo diren astean zeharreko lanak, baterako saioak eta bestelako xehetasunak.

Prest ditugu ekipoak etxeren batean behar izanez gero, hartu ahal izateko. Orduategia malgutu egingo litzateke egoera honetan eta klaseko ohiko orduategia erreferentzia izaten jarraituko zuen baina behar besteko aldaketak ezarriko litzaizkioke egoerara egokitzeko.

Zaintza, garraio eta jangela zerbitzuak ez dira eskainiko.

10. EMOZIOEN KUDEAKETA

Lehen astean, bizi izandako egoera ikuspegi afektibo-emozionaletik baloratzea bultzatuko da eta aurreko ikasturtean aldi ez presentzian landutako minimoak berrikusiko dira.

Horretaz gain, ikasleek izandako bizipenak partekatuko dira elkarlanean izan ditzaketen kezka eta beldurrei aurre egiten laguntzeko. Horien kudeaketa egokirako bitartekoak eskainiko dira eta bigarren eta hirugarren agertokietarako prestakuntza jasoko dute.